

## Interneten erosiz.mp3

–Gaurko saioan Interneten erostean izaten ditugun ohiko zalantzak argitzen lagunduko digu kontsumitzailearen bulegoko Olatz Bereziartuak. Egun on, Olatz.

–Bai, egun on.

–Online erosteak abantaila ugari ditu, baina arriskuak ere bai, ezta?

–Bai, abantaila asko ditu: erosketak etxetik mugitu gabe edozein tokitan egin ditzakegu, edozein ordutan, ez dugu ilara luzerik itxaron behar, marka desberdinen konparazioa egin dezakegu... Baina iruzurrak ere hor daude. Tentuz ibili behar dugu.

–Nola jakin dezakegu webgune bat fidagarria den ala ez?

Edozer erosi aurretik, alde batetik, orrialdean https jartzen duen ala ez begiratu behar dugu; segurua bada, s hizkiak agertu behar du; eta, bestetik, giltzarrapo edo giltza baten irudiak agertu behar du. Horiek agertzen ez badira, ez da ezer erosi behar.

Bestalde, edozein kontratu sinatu aurretik, baldintzak irakurri behar dira. Badakit hori ez dela erraza, testu luzeak izaten direlako, baina beharrezkoa da. Ez da ulertzen ez den ezer sinatu behar.

–Askotan jasotzen ditugu produktuak eskaintzen dituzten mezu elektronikoak. Horiek fidagarriak dira?

–Horiekin kontuz ibili behar da. Produktuak eskaintzeko jasotzen diren mezuak eta informazio pertsonala eskatzen dutenak iruzurrak izaten dira; beraz, ez, posta elektronikoz ez zaio inori datu pertsonalik eman behar, ezta erosketarik egin behar.

–Eta atzerriko webguneetan erostea, fidagarria al da?

–Bai, aurreko baldintzak betetzen badira, jakina. Edozein herrialdetan, erosi eta erreklamatzeko eskubide berberak ditugu.

–Askotan izaten dugun beste zalantza bat bueltatzeko eskubidearekin dago lotuta; erositakoa ikusten dugunean, gustatzen ez bazaigu, dirua bueltatu behar digute?

–Ez beti. Batzuetan, txekia edo balea ematen dute beste zerbait erosteko.

–Eta zenbat egun ditugu erreklamazioa egiteko?

–Paketea iritsi eta zazpi egun ditugu. Hortik aurrera, ezin dugu ezer egin.

–Ados, baina, erreklamazioa egitea korapilatsua izan daiteke. Non lagunduko digute horiek egiten?

–Kontsumitzailearen edozein bulegotan.

–Mila esker, Olatz. Gaurtik aurrera seguruago ibiliko gara sarean.

–Ez horregatik. Laster arte!